



## *Ipuingintza*

Ipuinek mundua mundu denetik gizakiaren eta gizabanakoaren eboluzioa adierazi dute. Ipuinetan aurkitzen dugu gizakiaren pentsamendu sakonaren adierazle paregabea. Haien aurrekariak errito eta mitoetan aurkitzen ditugu: mundua nola sortu zen, munduaren barneko indarrak eta haien arteko tira-birak, gatazka eta gertaerak... Baina batez ere, gizakiaren garapena adierazten dutelako iritsi dira guganaino.

Zientziak ordenatu du, neurri batean bederen, unibertsoaren izaeraren adierazpena; baina gizakiak oraindik mito zaharrak erabiltzen ditu ulertezinak gertatzen zaizkionak adierazteko eta sortzen diren gauza berrien eredu eta parabola bilakatzen dira. Hala ere, gizakiaren barne munduak esplikaezina izaten jarraitzen du: sentimenduak, emozioak eta, azken puntuan, azpi-konkszientearen arrastoak aurkitzea ez dago gure ahalmenean.

Alderantziz, psikiatreek mendez mende sortu diren mitoak eta amandre ipuinak erabiltzen dituzte gure barnean gatazkan ditugun indarren adierazpen gisa. Izan ere, amandre ipuinek sinbolizatu egiten dituzte gizakiaren pulsio ezkutatuak eta hurrei erakutsi egiten diete hauekin batera bizitzen. Aldi berean, erakusten diete sentimendu onak elikatuz eta hauen alde eginez, garaile aterako direla beren buruarekin duten gatazka horretan.

Beraz, herri batentzat garrantzi handikoa da tradiziozko ipuinak berreskuratu eta gaur egungo haurren begietara eta belarrietara ekartzea. Alde batetik, ipuin horiek gordetzen dituzten arketipoak oso zuzenak direlako. Erraz nabarmentzen da mende bakoitzak erantsi dizkion ohiturazko ñabardurak eta gehitu dizkion irizpide moralak, aldian aldiko berrikusi eta moldatu behar direnak hurrei transmititzeko orduan.

Bestetik, herri bakoitzak sortu duen pentsamoldearen lekuko suertatzen direlako. Horretaz guztiaz gain, hizkuntza transmititzeko paregabeak dira, eta merezi du horiek erabiltzea haurren eta helduen hizkuntza eredu hobetzeko. Egungo zeregina da eredu egokiak eskaintzea gaztetxoak irakurtzen zaletzeko. Horregatik, narrazio ereduak aztertzen hasiko gara. Eta ipuina da, dudarik gabe, haur literaturaren egiturarik ederrena; haurren irudimenera, emozioetara eta sentimentera zuzenean iristen den egitura. Ipuinetan jasoko du haren gatazken ispilu sinbolikoa, ipuinetan hartuko ditu bere bizitzan beharko dituen zuzentasun ereduak eta ipuinak entzunez amets, barre eta negar egingo du, eta gorrotoa eta maitasuna sentituko ditu..

Baina haurrek fabulatzeko edota irakurtzeko autonomia lortzen duen bitartean, gure gomendio nagusia da helduok ozenki irakurtzea eta kontatzea. Testu literarioek haurren belarrietara ekarriko dituztelako haurrek, berez, inola ere sortuko ez luketen hizkuntza jaso eta pasarte eta emozioen transmisio paregabea: hiztegi landua, esamolde eta perpausen atal desberdinak, eta, honekin batera, ideiak eta hauek lotzeko eta adierazteko elementu morfologiko eta sintaktikoak. Bestalde, hizkuntza gorena bereganatzen duen neurrian, haurrek hizkuntza idatzia ulertzeko beharrezkoak diren hipotesiak formulatzeko estrategiak garatuko ditu. Bere baitan hizkuntza idatziaren konposaketari buruz adibide ugari garatzen dituelako eta errazago irudikatuko du testu idatzi batek eskaini liezazkiokeen aldaera guztiak. Hizkuntza idatziaren konposaketak lagundu egiten digu besteen testuak ulertu eta haien esanahiaren zehaztasunak gureganatzen.



Bularretik Mintzora saiatzen da beraz, kalitatezko baliabideak ordenatu eta sailkatzen irakasleei haien bitartekaritza lanean laguntzeko asmoz.

Ikastaroak, baliabide didaktikoak eta material ordenatua eskaintzen ditugu horretarako.